

SEGI mugimendua

Gaia : uztailaren 14a eta Altevillage

Egun on,

Lehenik, eskertu nahi zaituztegu Bizi!-ko Mattin eta Xabier-ekin elkartzeko eta Baionan uztailaren 14eko duzuen kanpainaren aurkezteko hartu duzuen denboraz.

Bizi!-ren azken bi Koordinaketetan denbora hartu dugu zuen kanpainaren aurkezteko eta uztailaren 11tik 18rat Attac-ek eta Bizi!-k antolatuko duten Altevillage-a dataz mugitzeko luzatu daukuzuen eskaeraz mintzatzeko.

Kondutan harturik:

*bi ekimenak desberdinak direla (publikoaren aldetik, aipatu gaiaren aldetik, formatuaren aldetik, lekuaren aldetik, etab.),

*Altevillage-aren antolakuntza arras hasia dela, jadanik iragarria, iraganen den lekua erreserbatua, hizlari batzuekin harremanetan sartuak girela jada,

*uztailaren 14eko astearekin, besta eguna osteguna denez aurten, aste osoko gertakari militante batetarat jendea hurbilarazteko errexago dela,

*bi ekimenetan parte hartu nahi dutenak joaiten ahalko direla Segi-ren uztailaren 14eko egunerat eta beste egunetan Altevillage-erat,

*gertakari militante desberdinak andanaka badirela urte guzian Iparraldean eta usu denbora berean erortzen direla. Gure iduriko, horrek Euskal Herri dinamiko bat islatzen du nun ekimen eta alternatiba ugari sortzen diren!

Ez zaigu baliagarria iduritzen Altevillage-a astez aldatzea. Hala ere, zuen eskaera antolatzaile diren ATTAC-eko gazteeri luzatu diegu, azken hitza haiena baita.

Espero dugu bi gertakari horiek, zuen eguna eta Altevillage-a, inahala untsa iraganen direla.

Bixtan dena, zuekin berriz topatzeko prest gira aldi huntan gure mugimenduek dituzten ibilmodeetaz, lanaz eta helburuetaz orokorkiago mintzatzeko, hobeki elgar ezagutzeko eta gure arteko harremanen errexteko. Guretzat, garai egokiena dugun urteko bilan eta eztabaida prozesuaren ondotik litzateke, hots apirilaren 8 eta 9an dugun biltzar nagusitik landa.

Gure agurrik beroenak,

Bizi!

A Bayonne,
le 18 février 2011

Mouvement SEGI

Objet : le 14 juillet et l'Altervillage

Bonjour,

Avant tout autre chose, nous tenons à vous remercier d'avoir pris le temps de donner à Bizi! des nouvelles de votre campagne concernant la journée de mobilisation du 14 juillet à Bayonne lors de votre rencontre avec Mattin et Xabier.

Nous avons consacré deux temps de discussion lors de nos deux dernières Coordinations pour présenter votre campagne et votre demande de changement de date de l'Alter-Village co-organisée par les jeunes d'Attac et Bizi! au Pays Basque qui se déroulera du lundi 11 juillet au lundi 18 juillet.

Compte tenu du fait que :

- * les deux évènements diffèrent (tant par le public visé que les thèmes touchés, le format, les lieux de réalisation, etc.),
- * l'organisation de l'Altervillage est largement avancée, annoncée, les lieux devant l'héberger sont réservés, certains intervenants contactés,
- * la semaine du 14 juillet, avec ce jour férié tombant un jeudi, rend plus les gens facilement disponibles pour un événement militant s'étalant sur une semaine entière,
- * les personnes voulant participer aux deux évènements peuvent parfaitement participer le 14 juillet à la journée de Segi et les autres jours à l'Altervillage,
- * les évènements militants différents se chevauchent en permanence tout au long de l'année en Pays Basque nord. C'est, nous semble-t-il, le reflet d'un Pays Basque dynamique et créatif où de nombreuses initiatives et alternatives fleurissent !

Nous ne pensons pas utile déplacer l'Altervillage. Nous avons cependant transmis votre requête aux militants d'ATTAC qui en sont les organisateurs habituels, et qui décideront en dernière instance.

Nous espérons que ces deux évènements, l'Altervillage et votre journée, se dérouleront le mieux possible.

Nous sommes évidemment tout à fait partants pour vous rencontrer à nouveau, afin cette fois de discuter plus généralement du fonctionnement, du travail et des objectifs de nos deux mouvements respectifs, dans le but de mieux se connaître et de faciliter les relations entre nous. La période la plus adaptée pour une telle rencontre serait après notre processus annuel de débat se terminant par une AG les 8 et 9 avril.

Gure agurrik beroenak,

Bizi!



20-22 rue des Cordeliers BAYONNE
05 59 25 65 52
info@bizimugi.eu - www.bizimugi.eu